

XEDAPEN OROKORRAK

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

4810

EBAZPENA, 2022ko urriaren 3koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiarena, Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorraren testu bategina Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzen duena.

Euskal Herriko Unibertsitateko Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorra Gobernu Kontseiluaren 2011ko apirilaren 14ko bileran onartu zen (2011-05-18ko EHAA).

Gobernu Kontseiluaren 2022ko uztailaren 13ko Erabakiaren bidez, arautegiaren aldaketa partial bat onartu zen. UPV/EHUko Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorraren aldaketaren arrazoi nagusia izan da arautegia egokitu beharra Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutu berrituetara. Izan ere, 2021eko azaroaren 25ean Klaustroak Estatutuetan zenbait aldaketa egitea onartu zuen, eta testu berriko azken xedapenetako bigarrenean esaten zenez, aldaketok indarrean sartu eta bederatzi hilabeteko epean kasuan kasuko aldaketak egin beharko ziren arautegietan, hauteskundeei buruzkoak barne, Estatutuetan jasotako sektoreen definizio berrira egokitzeko. Era berean, kide anitzeko organoetan hautagaitzak aurkezteko eta ordezkariak esleitzeko sistema aldatu da, bertan gutxieneko emakume kopuru bat bermatzeko helburuaz. Azkenik, hauteskunde prozesuaren faseetan eskatzen diren formalismoak eguneratu eta egungo errealitate teknologikora egokitu dira.

Erabaki hartan Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiaren esku uzten zen aldaketa hura onartu ondorengo testu bategina egitea eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBATZI DUT:

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Euskal Herriko Unibertsitateko Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorraren testu bategina, eranskinean jasotzen den legez.

Leioa, 2022ko urriaren 3a.

UPV/EHUko idazkari nagusia,
AITOR ZURIMENDI ISLA.

ERANSKINA

HAUTESKUNDEEI BURUZKO ARAUTEGI OROKORRA

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Araubide juridikoa.

1.– UPV/EHUko Estatutuetako 11. Artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan jasotako kide anitzeko eta kide bakarreko organoak aukeratzeko hauteskundeak hauteskunderi buruzko arautegi orokor honetan zehaztutakoari jarraituz egingo dira. Salbuespena dira artikuluko horretako 1. paragrafoa a) eta i) letretan zehaztutako organoak aukeratzeko prozesuak; hala ere, organo horien arautegietan xedatu ahal izango da arautegi honi jarraitzea.

2.– Ikastegietako, sailtako eta unibertsitateko institutuetako organoak aukeratzeko hauteskundeak arautegi honetan zehaztutakoari jarraituz egingo dira; hala ere, horien arautegietan xedatu ahal izango da arautegi honi jarraitzea.

3.– Campusetako batzarrak, doktorego eskoletako organoak eta gainontzeko egituretako organoak aukeratzeko hauteskundeetan I. Tituluan zehaztutakoa ezarriko da, hauteskunde prozesuko epeei buruz 6.6 artikuluan zehaztutakoa izan ezik. Gainontzekoan, kasuan kasuko arautegiari jarraituko zaio, arautegi horietan jasota egongo baitira bakoitzaren ezaugarri bereziak eta noiz jarraituko zaion Hauteskunderi buruzko Arautegi Orokorrari; kasu horietan, arautegi hau, edozein ere, osagarria izango da.

4.– Errektorea aukeratzeko hauteskundeetan prozesu horretarako berriazko araudiari jarraituko zaio. Hartan zehaztuta ez dagoen guztirako arautegi hau ezarriko da, baina osagarri izango da.

5.– Klaustroko kideak aukeratzeko eta Klaustroak Gobernu Kontseiluan izango dituen ordezkariak aukeratzeko hauteskundeak Klaustroak onartutako arautegiari jarraituz egingo dira. Arautegi horretan zehaztuta ez dagoen guztirako arautegi hau ezarriko da, baina osagarri izango da.

6.– UPV/EHUko hauteskunderi buruzko arautegia garatzea eta interpretatzea Hauteskunde Batzorde Nagusiaren eginkizuna da.

2. artikulua.– Erantzukizuna.

Kide anitzeko edo kide bakarreko organoetako karguei esleitutako eginkizunak ez betetzeak erantzukizunak eskatzea ekarriko du.

3. artikulua.– Sufragiorako eskubidea.

1.– Hautesle eta hautagarri izango dira –bakoitza dagokion unibertsitateko kidegoan– edozein titulazio edo ikasketetan matrikulatuta dauden guztiak edo indarreko izendapen edo kontratua izanda Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatean zerbitzuak betetzen ari diren guztiak, betiere, artikuluko honetan zehaztutakoari jarraituz kasuan kasuko eroldan ageri badira. Sufragiorako eskubidea pertsonala da eta ezin da beste inoren esku utzi, beraz, ezin daiteke ordezkarien bidez gauzatu.

Sufragio aktiborako eskubidea izateko bete beharreko baldintzak erroldak ixteko egunean ez ezik (hauteskundeetarako egutegian zehaztutako egunean), botazio egunean ere bete beharko dira. Sufragio pasiborako eskubidea izateko bete beharreko baldintzak erroldak ixteko egunean bete behar dira (hauteskundeetarako egutegian zehaztutako egunean), eta kargua hartzeko egunera arte mantenduko dira, baldin eta pertsona hautatua bada. Behin karguaz jabetuta, galdu egingo da 4. artikuluan definitutako kasuetan.

Hautesle eta hautagai izateko bete beharreko baldintzak betetz gero erroldak ixteko egunean, kontrako probarik agertu ezean baldintzok betetzen jarraitzen direla ulertuko da.

Hautagai ez izateko eta bateraezintasunerako arrazoiak legeetan, Estatutuetan, arautegi honetan eta ezar daitezkeen gainontzeko arautegietan ezarritakoak izango dira.

2.– Oro har, unibertsitateko kidego bakoitzean, hautesle eta hautagai izango dira honako hauek:

- a) Lotura iraunkorra daukaten irakasle-ikertzaile doktoreak.
- b) Lotura iraunkorra daukaten irakasle-ikertzaile ez doktoreak eta lotura iraunkorra ez daukaten irakasle-ikertzaile doktoreak.
- c) Gainerako irakasle-ikertzaileak.
- d) Unibertsitateko gradu, master, doktorego programa edo berezko titulu ofizial batean matrikulatutako ikasleak (graduiko ikasketa ofizialetara lotutako berezko ikasketetakoak izan ezik).

Ikasketa osagarrietako edo bizi osoko prestakuntzako ikasketa berezietako ikasleek sufragio aktiborako eskubidea izango dute, baldin eta eskubide hori izateko bete beharreko baldintza guztiak betetzen badituzte, kontuan izanda, batez ere, prestakuntzaren iraupena eta bozketa eguna, eta, betiere, hauteskundeetan parte hartzeko asmoa adierazten badute.

e) Administrazio eta zerbitzuetako langileak, hau da: UPV/EHUko funtzionarioak eta lan kontratudunak, eta indarreko legediari jarraituz UPV/EHUn zerbitzuak betetzen ari diren beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioak.

3.– Unibertsitateko egitura bakoitzerako arautegi honetan eta gainontzeko arautegietan zehaztutakoari jarraituz, aurreko paragrafoko letretan sailkatutako hautesleak beste era batera banatu edo antolatu ahal izango dira kasuan kasuko hauteskundeetarako zehaztutako taldeen arabera.

4.– Konfiantzako lanpostuetan dauden langileak sufragio aktiborako eskubidea baino ez dute izango, baldin eta UPV/EHUko langileen lanpostuen zerrendan berariaz agertzen bada ezaugarri hori.

5.– Hauteskunde talde batean baino ezingo da erabili sufragio aktibo eta pasiborako eskubidea. Pertsona bat aldi berean irakasle eta ikertzailea eta administrazio eta zerbitzuetako langilea bada, arduraldi handieneko profila gailenduko da. Edozelan ere, pertsona bat irakasle eta ikertzailea bada edo administrazio eta zerbitzuetako langilea bada, ezin izango du ikasleen taldean parte hartu hauteskundeetan.

Hauteskunde prozesu jakin batean talde bateko errolda batean baino gehiagotan ageri direnek, arduraldi handien daukaten barrutian baino ezin izango dute eman botoa eta, zalantzarik izanez gero, antzinatasuna izango da irizpide nagusia.

6.– Ikastegi atxikietako ikasleak, administrazio langileak eta irakasleak ez dira ez hautesle ez hautagai izango.

7.– Hautesleak kasuan kasuko hauteskunde- mahaian emango du botoa; dena dela, botoa alde zurreratik emateko eskubideari buruz zehaztutakoa ere izan beharko da kontuan.

8.– Inor ezin izango da behartu, ezelan ere, botoa ematera edo botoa nori eman dion esatera.

9.– Kasuan kasuko hauteskunde batzordeak ebatziko ditu errolden kontrako inpugnazioak.

4. artikulua.– Ordezkaritza izateari uztea eta behin betiko eta behin-behineko ordezkapenak.

1.– Ordezkaritza izatea norberari dagokion ezaugarria da. Honako hauek izango dira kargua uzteko arrazoiak:

a) Heriotza, ezintasuna edo kargurako gaitasuna kenduta izatea.

b) Hauteskundeak baliogabetzea.

c) Agintaldia amaitzea.

d) Dimisioa aurkeztea.

e) UPV/EHUko kide edo ordezkaritza izateko hautatu zuen kolektiboko kide izateari uztea. Ordezkaritza organoa UPV/EHUko campus, ikastegi, sail, institutu edo nortasun juridikorik gabeko beste egitura batera mugatzen bada, egitura horretako kide izateari uztea.

f) Behin eta berriro, eta arrazoitu gabe, jarraituko hiru bileretara edo, txandaka, sei bileretara ez joatea, kasuan kasuko arautegian bestelakorik jasota egon ezean.

2.– Hautetsiak kargua uzten duenean zerrenda bereko hurrengo kide ez-hautetsiak beteko du haren lekua. Ordezkapena indarrean sartuko da organoko idazkaria jakitun jartzen denean kasuan kasuko arautegian jasotako epearen barruan.

3.– Bestalde, kide anitzeko titularra kanpoan edo gaixorik dagoenean eta, oro har, bertan ez dagoenean horretarako arrazoiak emanda, behin-behineko ordezkoak beteko du haren lekua. Horretarako, titularrak kide anitzeko organoko buruari bere egoeraren berri eman beharko dio kasuan kasuko arautegian zehaztutako baldintzak beteta.

5. artikulua.– Ordezkaritza aukeratzea.

1.– Hauteskundeak sufragio unibertsal, libre, berdin, zuzen eta sekretuaren bidez egingo dira.

2.– Kide anitzeko organoetarako talde bakoitzeko ordezkaritza taldekideek eurek aukeratuko dituzte euren artetik.

3.– Botoak hondar handienaren sistema proportzionala erabiliz zenbatuko dira (ikus I. eranskinetako adibidea).

4.– Kide anitzeko organoetako ordezkaritza hautatzeko hautagai zerrendak kolektiboak, itxiak eta ordenatuak izango dira, eta kasuan kasuko barrutiko hauteskunde batzordeari aurkeztu beharko zaizkio hautagai guztien sinadurarekin. Hautagai zerrendek kasuan kasuko hauteskunde taldeari dagozkion kideen laurdenak edo gehiago bete ahal izango dituzte, eta, edozelan ere, gutxienez bi hautagai. Edonola ere, zerrendan % 40 gutxienez emakumeak direla bermatuko da. Era berean, hautagai zerrendako lehen bi pertsonetako bat gutxienez emakumea izango da.

5.– Emakumeen presentzia aurreko paragrafoan adierazi den moduan bermatu ezin bada, hautagai zerrenda aurkeztearekin batera, baldintza hori betetzea eragozten duten arrazoiak argudiatu

beharko dira. Hauteskunde Batzordeak argudio horiek UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzari igorriko dizkio, eta hark hautagai zerrenda horren onarpenari buruzko txosten lotesle bat igorriko du, aurkeztutako hautagai zerrendak behin betiko aldarrikatu baino lehen. Aipatutako txosten hori jaso bitartean, eraginpeko hautagai zerrenda prozesutik kanpo geratuko da behin-behinean.

6.– Baldin eta, artikulua honen 3. zenbakian aurreikusitakoaren arabera ordezkariak zerrendetan banatu ondoren aurkeztutako hautagaitzen ordenari jarraituta aukeratutako emakumeen portzentajea % 40ra iristen ez dela egiaztatzen bada, non eta aukeraketa horretan ez dagoen artikulua honen 5. zenbakian aipatutako Berdintasunaren arloko Zuzendaritzaren aldeko txostena, portzentaje horretara iristeko, honela jokatu da:

a) Hautagai zerrenda bakoitzari esleitutako ordezkarien kopurua errespetatuko da, edonola ere.

b) Aurrekoa errespetatuta eta % 40ra iritsi arte, ordezkariak lortu duten zerrendetako bakoitzean hurrengo emakumea aukeratu da, haren aurretik dagoenaren kalterako, eta ordezkariak ehuneko handiena duten taldeetako zerrendetatik hasiko da. Eta talde bakoitzaren barruan, lortutako ordezkari kopuru handiena lortu duten zerrendetatik. Bi zerrenda ordezkari kopuruetan berdinduta geratuz gero, zozketaz erabakiko da.

c) Postu hutsak betetzeari dagokionez, horren ondorioz organoan diren emakume ordezkarien kopuruak % 40ra iristeari uzten badio, zerrendan dagoen hurrengo emakumea izendatuko da ordezeko gisa.

6. artikulua.– Hauteskunde prozesua.

1.– Hauteskunde prozesua organo eskudunaren erabakiaren bidez irekiko da.

2.– Honako organoek dute hauteskundeetarako deia egiteko eskumena:

a) Campuseko errektoreordeak, campuseko batzarren hauteskundeetarako, aldeztu aurretik campuseko batzarrak erabakia hartuta.

b) Ikastegiko dekanak edo zuzendariak, ikastegiko batzarrerako hauteskundeetarako edo ikastegiko zuzendaria edo dekanoa aukeratzeko; aldeztu aurretik ikastegiko batzarrak horri buruzko erabakia hartuta.

c) Zuzendariak, saileko kontseilua edo zuzendaria aukeratzeko hauteskundeetarako, aldeztu aurretik saileko kontseiluak horretarako erabakia hartuta.

d) Zuzendariak, unibertsitateko institutuko kontseilua edo zuzendaria aukeratzeko hauteskundeetarako, aldeztu aurretik institutuko kontseiluak horretarako erabakia hartuta.

e) Doktorego eskolako edo beste egitura bateko zuzendariak.

3.– Ezinezkoa bada organoa eratzea, hauteskundeetarako deia egiteko eskudunak artikulua honetako 2. zenbakian adierazitakoak izango dira, aldeztu aurretik UPV/EHUko errektoreak erabakia emanda. Eta horiek ezin dutenean errektoreak berak egingo du deialdia, arautegi honetako 9.5 artikuluan zehaztutakoa kontuan hartuta.

4.– Hauteskundeetarako deia egiteko erabakian jasota egongo da zein izango den hauteskunde eguna: erabakia argitaratu eta gutxienez hamar egunera eta gehienez hirurogei egunera izango da, hauteskunde batzordeak kontrako erabaki arrazoiturik eman ezean.

5.– Erabakian, era berean, jasota egongo da hauteskunde egutegia:

- a) Errolda ixteko eguna.
- b) Behin-behineko erroldak argitaratzeko eguna.
- c) Errolda inpugnatzeko epea.
- d) Behin betiko errolda argitaratzeko eguna.
- e) Hautagai zerrendak aurkezteko epea.
- f) Behin-behineko hautagai zerrendak aldarrikatzeko eguna.
- g) Hautagai-zerrendak inpugnatzeko epea.
- h) Behin betiko hautagai zerrendak aldarrikatzeko eguna.
- i) Bozketa eguna.
- j) Behin-behineko emaitzak aldarrikatzeko eguna.
- k) Behin-behineko emaitzak inpugnatzeko epea.
- l) Behin betiko emaitzak aldarrikatzeko eguna.

a), b), c) eta d) letretan adierazitako egunak hauteskundeak sufragio unibertsalaren bidez egiten direnean baino ez dira zehaztu beharko; beraz, ez dira zehaztu beharko kide anitzeko organoak berak aukeratzen duenean ordezkaria.

Zuzendariak eta dekanoak aukeratzeko hauteskunde egutegiak aurreikusi beharko du, halaber, botaziorako bigarren txanda bat, lotura iraunkorra duen doktorerik hautetsi aldarrikatu ez bada.

6.– Hauteskunde prozesu guztietan ondoko epeak bete beharko dira:

– Behin-behineko errolda argitara emango da errolda itxi eta gehienez ere 5 egunera, horretarako egokituko den iragarki ohol elektronikoan. Hauteskunde kanpaina egoki egin ahal izateko, behin betiko aldarrikatutako hautagai zerrendetako ordezkariak erroldaren kopia eskatu eta lortu ahal izango dute, baina erroldak kasua kasuko hauteskunde prozesuarekin zerikusia duten helburuetarako eta arautegi honetan jasotakoetarako baino ezin izango dira erabili. Horrez gain, hautagaiak konpromisoa hartuko du lortutako datuak ez zabaltzeko eta datuon ezelango tratamendurik ez egiteko.

– Erroldan akatsik egonez gero, erroldak argitaratu eta hurrengo hiru egunetan interesdunak inpugnazioa aurkeztu ahal izango du; zuzenketak, epe berean, ofizioz ere egin daitezke, baldin eta hauteskunde batzordeak berak okerrik antzeman ez gero.

– Erroldak eta, beraz, hauteskunde taldeen banaketa (hautagai edo hautesle izan zaitezkeen jakin ahal izateko), hauteskunde eguna baino hilabete lehenago itxiko da, hauteskundeetarako onartzen den egutegi- ari jarraituz.

– Hautagai zerrendak aurkezteko epea, gutxien dela, botazio eguna baino hamar egun lehenago amaituko da.

7.– Hautagai zerrendak aurkezteko epea behin amaituta, barrutiko hauteskunde batzordeak ondokoak egingo ditu: hautagaiek baldintzak betetzen dituztela egiaztatu eta behin-behineko hautagai zerrendak argitaratu; epea zehaztu inpugnazioen kontrako alegazioak aurkezteko eta akatsak

zuzentzeko eskariak aurkezteko; horiek guztiak ebatzi eta behin betiko hautagai zerrendak aldarrikatuko ditu gehienez bost eguneko epean behin-behinekoak aldarrikatu zirenetik kontaktzen hasita edo, akatsak zuzentzeko edo alegazioak aurkezteko eperik egonez gero, epe hori amaitu denetik kontaktzen hasita. Ondoren, hautagai zerrenden txartel ofizialak egingo ditu.

8.– Hauteskundeak sufragio unibertsal bidez badira, botoa deialdian zehaztutako egun eta ordutegian emango da kasuan kasuko mahaian, eta hautesleak berak eman beharko du (hurrengo artikuluan adierazitako kasuan izan ezik). Horretarako, kontuan hartuko da hauteskundeak beti eskolaldian egingo direla, eskola orduetan, eta bai goizez, bai arratsaldez. Hauteskunde batzordeak ordutegi bereziak zehaztua ahal izango ditu, horretarako erabakia behar bezala arrazoituta. Mahaiak hauteslearen nortasuna egiaztatuko du unibertsitateko txartela, NANA, pasaportea edo gida baimena erabilita (indarrean egon behar dira), eta erroldan dagoela ziurtatu ondoren, boto txartel ofiziala –behar bezala betea eta behar izanez gero gutunazalean sartuta– boto kutxan sartuko dute; botoa eman ahala, mahaia boto emailea markatuko du kasuan kasuko erroldan.

7. artikulua.– Botoa alde zuzenetik ematea.

1.– Sufragio unibertsal bidez egiten diren hauteskunde prozesuetan parte hartzea errazteko asmoz, hauteskunde batzordeak botoa alde zuzenetik emateko aukera onartuko du, eta behar den ziurtagiria emango dute. Hauteskunde prozesua kide anitzeko organoaren barruan egiten denean, botoa alde zuzenetik eman ahal izango da, baldin eta organoaren arautegian aukera hori berariaz baztertuta ez badago. Botoa alde zuzenetik emateko epea hauteskunde egutegian jasokoa izango da, baina, edozelan ere, hautagaizak behin betiko aldarrikatzen direnetik botazio eguna baino 48 ordu lehenagoko tartera bitartean izan behar da.

2.– Botoa emateko, boto txartel ofiziala erabiliko da gutunazal ofizial itxian sartuta. Gutunazal itxi hori eta NANaren, pasaportearen, gidatzeko baimenaren edo unibertsitateko txartelaren fotokopia bat beste gutunazal batean sartu beharko dira (edozein izanda ere txartela indarrean egon behar da), eta dagokion mahaiburuari zuzendu. Gutunazal horren kanpoaldean hauteslearen izen-abizenak eta zein taldeko kidea den adierazi beharko da, eta hautesleak hegalean sinatu eta zinta itsasgarriarekin ondo itxiko du.

3.– Behin botazioa amaituta, horrela emandako botoak boto kutxan sartuko dira, hauteslea erroldan agertzen dela egiaztatu ondoren. Hala ere, botoa alde zuzenetik eman arren hautesleak berriro eman badu botoa hauteskunde egunean, edo hautesle izateko eskubidea galdu badu, alde zuzenetik emandako botoa baliorik gabe geratuko da eta ez da kutxan sartuko.

4.– Hautesleak berak eman beharko dio alde zuzenetik botoa hauteskunde-mahaiko buruari edo eskumenak eskuordetuta dituenari.

5.– Alde zuzenetik emandako botoak balioa izan dezan, balioz osatzeko lege zehaztutako quorumarekin osatuko beharko da kide anitzeko organoa eta bozketa egin.

8. artikulua.– Botoak zenbatzea.

1.– Botazioa amaituta, botoak jendaurrean zenbatuko dira.

2.– Boto baliogabeak izango dira:

a) Boto txartel ez ofizialetan emandako botoak edo oharren bat duten txarteletan edo izenen bat ezabatuta edo aldatuta dutenak.

b) Hautagai zerrenda bat baino gehiago adierazita dutenak (zerrenda bat baino gehiago daukaten txartelak direnean); gutunazalean txartel desberdinak sartuta dituztenak, edo, gutunazala nahitaezkoa izanda gutunazal gabe ontzian sartutakoak.

c) Gutunazal ez ofizialetan emandako botoak edo gorabeheraren bat dutenak edo txartel ez ofizialak dituzten gutunazalekoak.

3.– Boto zuriak izango dira:

a) Txartel ofiziala zuriz daukatenak.

b) Hautagai zerrendarik aukeratuta ez dutenak (zerrenda bat baino gehiago daukaten txartelak direnean).

c) Boto txartelik ez daukaten gutunazalak.

4.– Botoak zenbatzen amaitu ondoren, mahaiko buruak emaitzak irakurriko ditu eta botazioaren akta egiteko prozesua gainbegiratu du. Mahaiko kide guztiek sinatuko dute akta hori. Aktan honakoak zehaztuko dira: hauteskunde barrutia; emandako boto kopurua; boto baliodunak, balio-gabeak eta zuriak; hautagai zerrenda bakoitzak lortutako botoak; eta bakoitzari dagokion ordezkari kopurua. Era berean, hautetsien izenak argitaratu dira, 5. artikulua 6. zenbakian aurreikusitakoa aintzat hartuta.

5.– Emaitzetan berdinketarik egonez gero, boto gehien lortu dituen zerrendakoak beteko du postua. Boto kopuruan ere berdinketa badago, zozketa publikoa egingo da.

6.– Emaitzak behin betiko aldarrikatu ondoren, suntsitu egingo dira boto txartelak (ingurugirako jasagarria den prozeduraren bat erabilita), erreklamazioren bat izan dutenak izan ezik.

9. artikulua.– Hauteskunde batzordeen osaera.

1.– Ordezkariak aukeratzeko hauteskundeetan, hauteskunde batzorde bana osatuko da hauteskunde barrutietan, eta batzordeko kide izango dira hauteskunde talde bakoitzeko kide bat (kasuan kasuko hauteskundeetan boto eskubidea izan behar du).

2.– Hauteskunde Batzorde Nagusiko kideak izango dira: errektorea edo hark izendatutako pertsona (batzordeburua izango da); idazkari nagusia; hauteskunde taldeetako kide bana, Gobernu Kontseiluko kideen artetik zozketaz aukeratuak. Zozketan talde bakoitzerako titularrak eta bi ordezkari aukeratu dira. Zozketa horretarako, Gobernu Kontseiluko kide guzti-guztiak bakoitza bere taldean sartuko dira, bakoitza dagokion kidegoan.

3.– Ikastegiko hauteskunde batzordeko kideak honakoak izango dira:

a) Dekanoa edo zuzendaria edo hark eskuordetutakoa (batzordeko burua izango da).

b) Idazkari akademikoa (batzordeko idazkaria izango da); Idazkari akademikoa ez badago, dekanorde batek edo zuzendariorde batek ordezkari izango du. Dekanorde horrek edo zuzendariorde horrek eskuordetuta baditu batzordeburuaren eginkizunak, beste dekanorde edo zuzendariorde batek ordezkari izango du idazkari lanak eta horrek ere ezin badu, beste batek eta abar.

c) Bestalde, ondokoak ere izango dira ikastegiko hauteskunde batzordeko kide, guztiak zozketa bidez ikastegiko batzarreko kideen artetik aukeratuak:

c.1.– Lotura iraunkorra daukaten irakasle eta ikertzaile doktoreen ordezkari bat.

c.2.– Irakasle-ikertzaile ez doktore iraunkorren eta irakasle-ikertzaile doktore ez-iraunkorren ordezkari bat.

c.3.– Ikasleen ordezkari 1.

c.4.– Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

4.– Saileko hauteskunde batzordeko kideak honakoak izango dira:

a) Saileko zuzendaria edo hark eskuordetutakoa (batzordeko burua izango da).

b) Saileko idazkaria (batzordeko idazkaria izango da). Saileko idazkaria ez badago, saileko zuzendariak izendatutako kidea izango da haren ordezkaria.

c) Bestalde, ondokoak ere izango dira saileko hauteskunde batzordeko kide, guztiak zozketa bidez saileko batzarreko kideen artetik aukeratuak:

c.1.– Irakasleen ordezkari bat.

c.2.– Ikasleen ordezkari bat.

c.3.– Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

5.– Hauteskunde batzordearen osaera ikastegian, sailean edo UPV/EHUko egituran gobernu organorik ez dagoenean:

Unibertsitateko dena delako egituran gobernu organorik ez badago (egitura sortu edo banatu egin delako) arautegi honetako 11. artikuluan zehaztutako eginkizunak betetzeko, hauteskunde batzordea honakoei jarraituz eratuko da:

a) Batzordeko burua: egitura horrek gobernu organorik izango balu, organo horretako buru izateko baldintzak beteko lituzketenen artetik zaharrena.

b) Idazkaria: egitura horrek gobernu organorik izango balu, organo horretako idazkari izateko baldintzak beteko lituzketenen artetik gazteena.

c) Bestalde, egitura horretako hauteskunde batzordeko kide izango dira egitura osatzen duten taldeetako ordezkari bana, zozketaz aukeratuak taldeko kideen artetik. Ordezkariak aukeratzeko hauteskundeak egitura sortu edo banatzeko egindako proposamenean jasotako hauteskunde egutegiaren arabera egingo dira.

6.– Campuseko batzarren, doktorego eskolen eta gainontzeko egituren kasuan, bakoitzak bere arautegian zehaztuko du zein osaera izango duen hauteskunde batzordeak, betiere, artikuluhonetako lehenengo paragrafoan zehaztutakoari jarraituz.

7.– Hauteskunde batzordearen agintaldia lau urtekoa izango da. Ikasleen ordezkariak bi urterik behin aldatuko dira.

8.– Hauteskunde batzordeko kideren bat hautagai bada, ordezkaria izendatu beharko da adierazitako prozedurari jarraiki, betiere, hori posible bada. Hori egiterik ez badago, saileko, institutuko edo kasuan kasuko egiturako batzarrak edo kontseiluak erabakiko ditu egin beharrekoak.

10. artikulua.– Hauteskunde batzordearen bilerarako deia eta batzordearen funtzionamendua.

1.– Hauteskunde batzordearen bileretarako deia batzordeburuak egingo du.

2.– Batzordearen bilera baliozkoa izan dadin, batzordeko burua eta idazkaria egon behar dira bertan, eta horiez gain, gutxienez batzordeko hiru kide.

3.– Erabakiak hartzeko, bertaratutako botoen gehiengoa beharko da. Berdinketa dagoenean, batzordeko buruaren botoak erabakiko du.

11. artikulua.– Hauteskunde batzordearen eskumenak.

1.– Hauek dira hauteskunde batzordearen eskumenak:

- a) Hauteskunde prozesuaren gestioa, deialdiari jarraituz.
- b) UPV/EHUko Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorra garatzeko Hauteskunde Batzorde Nagusiak erabakitakoa edo batzorde horrek arautegiari buruz interpretatutakoa ezartzea.
- c) Hauteskunde prozesuari buruzko gainontzeko arautegia interpretatzea.
- d) Antzematen diren hutsuneak edo akatsak zuzentzea, xedapen egokien bidez.
- e) Hautesle errolda osatzea, administrazioko zerbitzuek emandako zerrendak oinarri hartuta.
- f) Erroldak argitaratzea.
- g) Hautesle errolda kontuan hartuta zenbat hauteskunde mahai jarri behar diren erabakitzea; dena dela, ikastegiko edo saileko atal bakoitzeko gutxienez mahai bat jarri beharko da, behar bezala arrazoitutako kasuetan izan ezik.
- h) Hauteskunde mahaietako jarduerak zuzentzea eta koordinatzea.
- i) Hauteskundeko akta egitea, eta egoki bada, hautagaien behin betiko zerrenda aldarrikatzea, hauteskundeko behin betiko emaitzak ematea eta hautagai hautetsiak aldarrikatzea.
- j) Egindako galderei erantzutea eta irizpideak zehaztea, emandako eskumenen babesean.
- k) Hauteskunde arloko erreklamazioak ebaztea.
- l) Boto txartel ofizialak egitea.

2.– Hauteskunde batzordeak hartutako erabakien kontra erreklamazioa jarri ahal izango zaio errektoreari hiru eguneko epean, eta errektoreak 5 egun izango ditu ebazteko. Errektoreak emandako erabakiaren kontra, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa.

3.– Estatutuetako 162.2 artikuluan jasotako Hauteskunde Batzorde Nagusiaren eskumena da UPV/EHUren Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorra garatzea eta arautegi hori interpretatzea, betiere, hauteskunde prozesuetan Klaustroak eta errektoreak dituen eskumenak kontuan hartuta.

12. artikulua.– Hauteskunde prozesuari buruzko zalantzak eta galderak.

Unibertsitateko kideek hauteskunde prozesuari buruzko galderak egin ahal izango dizkiote kasuan kasuko hauteskunde batzordeari, idatziz edo ahoz. Galderaren arazoa oso premiazkoa izanik ezinezkoa bada batzordearen bilerarako deirik egitea, baina Hauteskunde Batzorde Nagusiak lehendik emandako erabakiren bat edo bestelako erabakiren bat egoerarekin bat badator, batzordeko buruak edo idazkariak, erabaki horietan oinarrituta, behin-behineko erantzuna eman dezake. Edozelan ere, batzordeak egingo duen hurrengo bileran erantzuna zuzendu edo aldatu egin ahal izango da.

13. artikulua.– Hauteskunde mahaia.

1.– Hauteskunde mahaia hauteskunde talde bakoitzeko kide batez osatuta egongo da, eta kideok aukeratzeko, kasuan kasuko hauteskunde batzordeak jendaurreko zozketa egingo du hautagai zerrendak aurkezteko epea behin bukatuta. Zozketan erroldan agertzen diren guztiak sartuko dira, eta zozketaren buru batzordeburua bera edo hark eskuordetutakoa izango da. Idazkaria batzordeko idazkaria bera edo mahaiaren erabaki bidez izendatutako besteren bat izango da. Mahaiko kideen ordezkioak ere izendatuko dira. Hautagaiak ezin izango dira izan hauteskunde mahaiko kide, betiere hori posible bada. Dena dela, egoera kontuan izanda hautagairen bat mahaiaren egotea nahitaezkoa bada, hauteskunde batzordearen ustez egoki diren neurriak ezarriko dira.

2.– Hauteskunde mahaiko buru edo kide izatea egokitzuz gero, nahitaezkoa da eginkizun hori betetzea. Izendapena denbora nahikoaz jakinarazi beharko zaie interesdunei, eta izendapenari uko egiteko aukera izango dute agiri bidezko arrazoi justifikatuak aurkeztuta hauteskunde batzordeko idazkariari. Horretarako epea hauteskunde eguna baino berrogeita zortzi ordu lehenagora artekoa izan behar da. Idazkariak hartuko du horren inguruko erabakia, eta ordezkorik izendatze-kotan, horren berri eman beharko du.

3.– Mahaia eratzean ez bertaratzeak zehapenak ezartzea ekar dezake.

4.– Mahaiko zenbait kide bertaratu ez direlako ezinezkoa bada mahaia eratzea, bertan daudenek unean bertan emango diote egoeraren berri hauteskunde batzordeari, haren ustez hauteskundeak behar bezala egiteko egokien diren pertsonak aukera ditzan, edo dekanok edo zuzendariaren esku utz dezan ardura hori.

14. artikulua.– Hauteskunde mahaia eratzea eta mahaiaren funtzionamendua.

1.– Hauteskunde mahaia botoa ematen hasteko adierazitako ordua baino ordu erdi lehenago eratuko da, hauteskundeei buruzko arautegiari eta hauteskunde batzordeak zehaztutakoari jarraituz. Botoa hauteskunde mahai horren aurrean emango da.

2.– Hauteskunde mahaiaren eginkizunak dira:

a) Botazioan buru izatea.

b) Bozketa bakez egiten dela zaintzea, eta hautagai zerrenda guztietarako nahikoa txartel eta gutunazal daudela ziurtatzea.

c) Boto emailearen nortasuna egiaztatzea.

d) Prozesua gardentasunez egiten dela eta hauteskunde arauak bete egiten direla zaintzea.

e) Botoak zenbatzea eta hauteskundeko akta egitea.

3.– Mahaiak botoen gehiengo soilaz hartuko ditu erabakiak. Berdinketa suertatuz gero, mahaiko buruaren kalitatezko botoak erabakiko du.

4.– Hauteskunde prozesuan gorabehera larririk gertatuz gero, mahaiko buruak Hauteskunde Batzorde Nagusiari jakinaraziko dio lehenbailehen, eta horren berri jasoko du aktan.

5.– Hala nahi duten hautagaiak ikuskari bat proposatu ahaliko dute mahai bakoitzeko. Ikuskaria kasuan kasuko mahaiko hauteslea izan beharko da. Ikuskariak izendatzeko eskariak Hauteskunde Batzorde Nagusiari bidali beharko zaizkio, hautagaiak behin betiko aldarrikatu eta hurrengo bi egunen barruan. Ikuskariak izendatzeko eskarian proposatu nahi diren ikuskarien izen-deiturak,

helbidea eta telefonoa eman beharko dira, eta horrekin batera interesatuek sinatutako onarpen idatziak aurkeztu. Ikuskari titularra eta ordezkoa izendatu ahaliko dira, hartara txandak egin ahal izango dituzte hauteskunde egunean.

6.– Hauteskunde batzordeak, baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, bakoitzaren izendapena egingo du, bi kopian. Ikuskariak kopietako bat mahaiko buruari emango dio eta hark mahaia eratzeko aktari erantsiko.

15. artikulua.– Hauteskunde kanpaina.

1.– Hauteskundeetarako deia egiten denetik aurrera, bilerak edo hauteskundeei buruzko informazioa emateko jarduerak egin ahal izango dira. Behin betiko hautagai zerrendak aldarrikatzen diren egunean hasi ahal izango da botoa ekitaldi publikoan eskatzen, ez lehenago.

2.– Jarduera horietakoren batek gorabeherarik sor badezake eskoletan, administrazioan edo beste lan arlo batzuetan, antolatzaileek baimena eskatu beharko diote ikastegiko dekanuari edo zuzendariari edo, egoki izanez gero, saileko zuzendariari.

II. TITULUA

KIDE ANITZEKO ORGANOETARAKO HAUTESKUNDEAK

16. artikulua.– Gutxienerako baldintzak.

1.– Hauteskundeetarako deia egiteko epea hiru hilabetekoa izango da, kide anitzeko organoaren agintaldia legez amaitu denetik edo organoa eratzea ezinezko bihurtu denetik kontatzen hasita. Hala ere, kide anitzeko organoak egoera aztertu, eta kide batzuk bakarrik aukeratzeko egin dezake hauteskunde deia.

2.– Ikastegiko Batzarrerako hauteskundeetan, irakasle-ikertzaileak Arautegi honen 3. artikulua-ren 2. atalaren a, b, eta c letretan aipatutako hiru hauteskunde taldetan banatuko dira.

3.– Kide anitzeko organoetako ordezkariak hautatzeko hautagai zerrendak kolektiboak, itxiak eta ordenatuak izango dira, eta kasuan kasuko barrutiko hauteskunde batzordeari aurkeztu beharko zaizkio hautagai guztien sinadurarekin.

Hautagai zerrenda bakoitzak posta elektronikoko helbide bat edo harremanetarako baliabide arinen bat zehaztuko du (posta elektronikoko helbide, hobe), hauteskunde batzordeak, berak bakarrik, prozesu guztian erabili ahaliko duena agiriak eskatzeko, informazioa bidaltzeko edo hautagai zerrendei eskariak egiteko; horrela, azkar eman ahal izango zaie hauteskunde batzordeak hartutako erabakien berri hautagai zerrendei, eta hauteskunde prozesua bizkorragoa eta eragin-korragoa izango da.

4.– Talde bateko kide kopurua kontuan hartuta ezinezkoa edo zaila baldin bada hautagai zerrendak adierazitako eran eratzea, kide anitzeko organoak, interesdunek esan beharrekoa entzun ondoren, ordezkariak aukeratzeko edo izendatzeko egoki diren irizpideak ezar ditzake.

5.– Kide anitzeko organoetarako ikasleen ordezkariak aukeratzeko hauteskundeak urtero egingo dira, oro har, azaroaren 30etik urtarrilaren 30era bitartean.

Edozelan ere, ahalegina egingo da ikasleei ahalik eta eragozpen gutxien eragiteko, eta azterketa gehien dituzten sasotik kanpo jarriko da hauteskunde eguna.

17. artikulua.– Botoa emateko prozedura.

Hauteskunde taldeetako kideek boto txartel ofizialen bidez emango dute botoa. Horretarako, onartutako hautagai zerrenda guztietarako nahikoa txartel daudela bermatu beharko da, bai eta boto zuria emateko txartel nahikoa ere, boto emaileak askatasun osoz aukera dezaten txartela boto eskubidea gauzatzeko orduan. Irizpidea bera izango da nahiz eta hautagai zerrenda bakarra egon.

III. TITULUA

KIDE BAKARREKO ORGANOAK AUKERATZEKO HAUTESKUNDEAK

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

18. artikulua.– Kide bakarreko organoak aukeratzeko hauteskundeak.

1.– Ikastegiko dekanok edo zuzendariak, saileko zuzendariak edo institutuko zuzendariak bilerarako deia egingo dio saileko batzarrari edo saileko kontseiluari (kasuaren arabera) hauteskundeetarako egutegia erabakitzeke kontuan hartuta 6. artikuluan zehaztutakoa. Bilera horretarako deia egiteko epea agintaldia amaitu baino 30 egun lehenago hasi eta agintaldia amaitu eta hamabost egunera bukatuko da.

Ikastegiko batzarrak edo saileko kontseiluak ohiko edo ez ohiko bilera egingo du deialdian zehaztutako egunean, eta hauteskundeetako egutegia erabakiko du arautegi honetako 6. artikuluan zehaztutako eduki eta epeak kontuan hartuta.

2.– Jardunean dagoen dekanok edo zuzendariak ikastegiko batzarrari edo saileko edo institutuko kontseiluari ezohiko bilerarako deia egingo dio dekanok edo zuzendari berria aukeratzeko. Dei hori egiteko epea hilabetekoa izango da hauteskundeetarako deia egiten duen erabakia argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Edozelan ere, hauteskunde egutegian zehaztutako hauteskunde egunean agintaldia amaituta egon beharko da.

3.– Ikastegiko dekanok edo zuzendariak edo saileko edo institutuko zuzendariak izateko hautagai zerrendak dagokion deialdian zehaztutako moduaren arabera aurkeztuko dira, eta haien aurkezpena jasota geratuko da, dagokion epearen barruan.

Hautagai zerrenda hautagaiaren izen-abizenez sinatuta egongo da, eta ikastegi, sail edo institutuko hauteskunde batzordearen buruari helaraziko zaio, barneko arautegian zehaztutako epean, eta, halakorik izan ezean, hamar eguneko epean, hauteskundeak deitzeko erabakia argitaratu ondorengo egunetik zenbatzen hasita.

4.– Ikastegiko dekanok edo zuzendarirako hautagai zerrendari gobernu taldearen egitura eta programa erantsiko zaizkio, barneko arautegiak horrela aurreikusten badu. Saileko edo institutuko zuzendarirako hautagai zerrendari, nahi izanez gero, idazkaria eta programa erantsi ahal izango zaizkio, baldin eta barne arautegiak hala eskatzen badu.

5.– Hautagai zerrendak aurkezteko epea behin bukatuta, hauteskunde batzordeak zerrenda onartuak jendaurrean jarriko ditu, eta jarduneko dekanok edo zuzendariak emango dio horren berri bost eguneko epean.

19. artikulua.– Hautagaiak bete beharreko baldintzak.

1.– Ikastegietako zuzendariak eta dekanok ikastegiari atxikitako irakasle eta ikertzaile iraunkor doktoreen artetik hautatuko dira eta errektoreak izendatuko ditu. Halako irakaslerik ez balego, irakasle eta ikertzaile iraunkorren artetik aukeratuko lirateke.

2.– UPV/EHUren Estatutuetako 212. artikuluan zehaztutakoari jarraituz, saileko zuzendaria saileko kontseiluak aukeratuko du, saileko kide diren irakasle eta ikertzaile iraunkor doktoreen artetik, eta errektoreak izendatuko du.

3.– Kide bakarreko organoetako hauteskundeetan hautagai aurkeztu nahi izanez gero, hautagaiak idatzia bidali beharko dio kasuan kasuko organoari, eta ikastegiko batzarreko edo saileko edo institutuko kontseiluko kideen % 10aren babesia izan beharko du. Paragrafo honetan zehaztutakoa ezarriko da, horretarako arautegian bestelakorik zehaztu ezean.

20. artikulua.– Botoa emateko era, botoak zenbatzea eta izendapena.

1.– Ikastegiko dekanoa edo zuzendaria eta saileko edo institutuko zuzendaria aukeratzeko hauteskundeetako boto txarteletan hautagai bakar baten izena agertu beharko da, nahiz eta boto zuria emateko aukerarik ere izango den.

2.– Ikastegiko dekanoa edo zuzendaria edo saileko edo institutuko zuzendaria aukeratzeko botazioa egin ahal izateko, kide anitzeko organoa balioz eratzeko beharrezko den kide kopurua egon beharko da bertaratuta.

3.– Bozketaren egunean hiru hautagai edo gehiago daudenean, lehenengo txandan, boto baliodunen gehiengo osoa lortzen duena aukeratuko da. Inork lortuko ez balu boto kopuru hori, bigarren botazioa egingo da, baina horretan bakarrik lehiatu ahal izango dira lehen botazioan boto gehien lortu duten hautagai biak. Bigarren txanda horretan boto gehien lortzen duena aukeratuko da.

4.– Bozketaren egunean bi hautagai edo bakarra dagoenean, txanda bakarra egingo da. Bi hautagai izanez gero, boto gehien lortzen duen pertsona ikastegiko zuzendari edo dekanoa edo saileko edo institutuko zuzendari aldarrikatuko da; eta, hautagai bakarra izanez gero, hori bera aldarrikatuko da, boto baliodunen heren bat baino gehiago eskuratzen baditu.

5.– Berdinketa izanez gero, berriro egingo da botazioa. Hala ere berdinketa izanez gero, ondo-koak izango dira dekanoa edo zuzendaria aukeratzeko irizpideak: maila akademiko handiena; kategorian antzintasun handiena; nagusiena. Irizpideok hurrenkera horretan ezarriko dira.

6.– Hautagairik ez badago edo zehaztutako prozedurari jarraituz ez bada lortu aldeko boto nahikoa dekanoa edo zuzendari hautetsia aldarrikatzeko, jarduneko dekanok edo zuzendariak hauteskundeetarako beste deialdi bat egingo du 30 eguneko epean. Egoera errepikatuz gero, errektoreak ikastegiko dekanoa edo zuzendari edo saileko edo institutuko zuzendari izenduko du unibertsitatearekin lotura iraunkorra daukaten irakasle eta ikertzaile doktoreetako bat. Izendapena arrazoitua izan behar da eta agintaldirako baldintzak zehaztu beharko ditu.

7.– Batzarreko edo kontseiluko idazkariak errektoreari jakinaraziko dio nor izan den hautetsia, hark izendapena egin dezan. Dekano edo zuzendariarekin batera, nahitaez, idazkaria izendatu beharko da.

8.– Ikastegiko dekanoa edo zuzendari kargua edo saileko edo unibertsitateko ikerketa institutuko zuzendari kargua lau urterako da. Barne arautegiak mugatu ahal izango du zenbat agintaldi egin daitezkeen.

21. artikulua.– Kargua uzteko arrazoiak.

1.– Ikastegiko dekanok edo zuzendariak edo saileko edo institutuko zuzendariak hauekiko arrazoiaren batengatik utziko du kargua:

a) Hilez gero.

b) Legezko ezintasuna izanez gero.

c) Dimisioa aurkeztuz gero.

d) Kargurako gaitasuna kenduta izatea.

e) UPV/EHUko kidea izateari utziz gero, edo ordezkari den ikastegiko, saileko edo institutuko kidea izateari utziz gero.

f) Agintaldia amaituz gero.

g) Ikastegiko batzarrak edo saileko kontseiluak zentsura mozioa onartuz gero, Ikastegien Oinarriko Arautegian zehaztutakoari jarraituz.

h) Hauteskundeak sufragio unibertsalaren bidez izan badira, kargua utziko du ikastegiko edo saileko batzarrari UPV/EHUko Estatutuak 172. artikuluan zehaztutakoa aplikatuz.

2.– Nahiz eta agintaldia bukatu edo dimisioa aurkeztu, jardunean jarraituko du ordezkaria aurreratu arte.

3.– Dekano edo zuzendariak legezko beste arrazoiaren batekiko edo gaixorik edo kanpoan dagoelako ezin baditu bere eginkizunak bete, arautegiaren arabera dagokion ordezkaria beteko ditu behin behinekoz, eta arautegian zehaztuta ez badago, kasuan kasuko kide anitzeko organoak erabakiko du nor izango den behin-behineko ordezkaria. Sei hilabete baino gehiago emango balu gaixorik edo kanpoan, kasuan kasuko kide anitzeko organoak hauteskundeetarako deia egingo du.

4.– Ikastegiko dekanok edo zuzendariak edo saileko edo institutuko zuzendariak kargua utziz gero, haren proposamenari jarraituz izendatutako kargu akademiko guztiek ere utziko dute kargua, baina jardunean jarraituko dute harik eta titular berriak izendatu arte.

5.– Lanpostuan izendapen askez dauden AZPko langileen izendapena berriaz berretsi beharko du dekanok edo zuzendari berriak, edo, bestela, ahalik eta arinen egin beharko da lehiaketarako deia.

II. KAPITULUA

IKASTEGIKO KIDE BAKARREKO ORGANOAK AUKERATZEKO XEDAPEN ESPEZIFIKOAK

22. artikulua.– Hauteskundeak sufragio haztatuaren bidez.

1.– Ikastegiko arautegian berriaz jasota badago, ikastegiko dekanok edo zuzendaria sufragio unibertsal bidez aukeratu ahal izango da. Hala izan ezean, Ikastegiko Batzarrak aukeratu du, Arautegi honen 20. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Aukeraketa sufragio unibertsalaren bidez eginez gero, errolda ixteko eguna bakarrik izango da hauteskunde prozesu osorako, bai sufragio aktiborako bai pasiborako, eta hautagai hautetsirik ez

badago, bozketaren emaitzak argitaratuko dira. Hauteskunde egutegian gehienez ere 15 eguneko tartea egongo da lehenengo eta bigarren txandaren artean. Horrela egin ezean, behar bezala arrazoitu beharko da.

2.– Dekanoa edo zuzendaria hautatzeko hauteskundeetako botoa ikastegiko unibertsitateko kidegoen arabera haztatuko da, ikastegiko funtzionamendu Arautegian fakultateko edo eskolako batzarra osatzeko ezarritako hauteskunde kidego eta ehunekoekin bat etorrita.

Botoen haztapena egiteko, hautagaiei emandako boto baliiodunak baino ez dira kontuan izango. Artikulu honen ondorioetarako, boto baliiodunak hautagai bakar bat markatuta dutenak izango dira. Beraz, ez dira hautagaiei balioz emandako bototzat hartuko ez boto zuriak, ez boto baliogabeak.

Zenbaketaren akta egin ondoren, hauteskunde batzordeak hautagaia aldarrikatuko du behin-behinekoz.

3.– Boto baliiodunen haztapena kasuan kasuko hauteskunde batzordeak egingo du. Botoen haztapenari dagokion koefizientea lortzeko, zatiketa egingo da: 2. puntuaren arabera talde bakoitzari dagokion ehunekoa zati hautagai guztiei talde horretan balioz emandako boto guztiak. Hauteskunde batzordeak koefiziente hori ezarriko die hautagai zerrenda bakoitzak talde bakoitzean lortutako botoei, ondorengo puntuan adierazitako irizpideei jarraituz.

4.– Eragiketak egiteko, ondorengo formula eta II. eranskineko adibidea hartu behar dira kontuan.

Gehiengoa osoa izango da boto haztatuen % 50 baino gehiago lortu bada. Formula aplikatzeko irizpideak:

Sa A taldea: Unibertsitatearekin lotura iraunkorra daukaten irakasle-ikertzaile doktoreak.

Sb B taldea: lotura iraunkorra daukaten irakasle-ikertzaile ez doktoreak eta lotura iraunkorra ez daukaten irakasle-ikertzaile doktoreak.

Sc C taldea: gainerako irakasle eta ikertzaileak.

Sd D taldea: ikasleak.

Se E taldea: administrazio eta zerbitzuetako langileak.

Pr talde bakoitzari dagokion ehunekoa (artikulu honetako 2. puntuan adierazitakoak).

Vv Hautagaiei talde bakoitzean balioz emandako boto kopurua.

Cp Talde bakoitzaren haztapen koefizientea.

V1 1. hautagaiak lortutako boto kopurua.

V2 2. hautagaiak lortutako boto kopurua.

V3 3. hautagaiak lortutako boto kopurua.

C1 1. hautagaiak lortutako boto haztatuen %.

C2 2. hautagaiak lortutako boto haztatuen %.

C3 3. hautagaiak lortutako boto haztatuen %.

Talde bakoitzean hautagai bakoitzak lortu duen boto haztatua kalkulatzeko formula:

$Cp = Pr/Vv$, $Ci = Cp \times Vi$, $i = 1, 2, 3, \dots$

Hautagai bakoitzak guztira lortutako boto haztatuak hautagai bakoitzak talde bakoitzean lortutako botoen batura izango dira.

23. artikulua.– Hautetsiak aldarrikatzea.

1.– Bi hautagai izenez gero, balioz emandako boto gehien lortzen dituen hautagaia aldarrikatuko da, dagozkion haztapienak aplikatu ondoren.

Bi hautagai baino gehiago izanez gero, lehen txandan boto baliodunen gehiengoa eskuratzen dituen hautagaia aldarrikatuko da, aurreko zenbakian aurreikusitako haztapienak aplikatu ondoren. Inork lortuko ez balu boto kopuru hori, bigarren botazioa egingo da, baina horretan bakarrik lehiatu ahal izango dira lehen botazioan boto gehien lortu duten hautagai biak, lehen aipatutako haztapienak kontuan hartuta. Bigarren txandan botoen gehiengo soila lortzen duen hautagaia aldarrikatuko da, botoen haztapiena egin ondoren. Bigarren txanda lehenengo txandako emaitzak argitaratu eta gehienez 10 egunera egingo da.

Hautagai bakarra izanez gero, hautagai hori aldarrikatuko da igorritako boto baliodunen heren bat baino gehiago lortzen badu, aipatutako haztapienak aintzat hartuta.

2.– Hautagai hautetsia behin-behinekoz aldarrikatzen denean, erreklamazioak jarri ahal izango dira aldarrikapena egin eta hurrengo bi egunetan. Kasuan kasuko hauteskunde batzordeak bi eguneko epea izango du (erreklamazioak aurkezteko epea bukatzen denetik kontatzen hasita) erreklamazioak ebazteko, eta, ondoren, behin betiko aldarrikatuko du nor den hautetsia.

3.– Hautagai hautetsia behin betiko aldarrikatzearen kontra errekurtsioa jar dakiokere errektoareari hiru eguneko epean, eta hark bost eguneko epea izango du errekurtsioa ebazteko. Epe hori igarota ez bada horren gaineko berariazko erabakirik eman, erreklamazioa ezetsi egin dela ulertu beharko da eta administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri ahal izango du erreklamazio egileak.

4.– Hautetsia behin betiko aldarrikatu aurretik, hauteskunde batzordeak baliogabetu egin ahalko du mahai bateko edo zenbaitzuetako botazioa, baldin eta botazioaren emaitzan eragina izan dezakeen akatsik egon bada. Horrelakoetan, berriro egingo da botazioa ahalik eta arinen.

LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA

Egiturretako gobernu organoek egungo osaera mantenduko dute, berritzeko unea iritsi arte. Postu hutsak dagokion ordezkaritza hautatu zen unean indarrean zen araudiaren arabera beteko dira.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– Unibertsitateko beste arautegi batzuetan hauteskundeei buruz zehaztutakoa modu automatikoan aldatzea.

Ikastegien Oinarrizko Arautegian, Sailen Oinarrizko Arautegian, ikastegietako arautegietan eta sailen arautegietan hauteskundeei buruz zehaztutakoa modu automatikoan aldatuko da Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokor honetan zehaztutakoagatik, arautegi hau UPV/EHUko Estatutuetara egokitzeko aldatu den heinean.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Arautegi honetako 5.4 artikuluan zehaztutakoa ezarriko da, baldin eta kasuan kasuko taldean kide gutxien dituen sexukoak talde osoaren gutxienez % 25a badira. Hori bete ezean, hautagai zerrendan gizon eta emakumezkoek duten ehunekoa, gutxien dela, campusean, ikastegian, sailen edo ikerketako unibertsitate institutuan hauteskunde talde berak kide gutxien dituen sexurako

daukan ehuneko bera izan beharko da, eta zerrendan, edonola ere, emakumezko bat, gizonezko bat, emakumezko bat, gizonezko bat.... Hurrenkera bete behar da horretarako aukerarik dagoen heinean.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Hauteskunde prozesu baten ondorioz edo bat-bateko arrazoiengatik kide anitzeko organoan posturen bat bete gabe badago eta ezinezkoa bada betetzea, organoa balioz eratzeko beharrezko den kopururako betetako postuak baino ez dira kontuan hartuko.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

UPV/EHUK Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo betez gero jarduera akademikorik, deialdietan bideak zehaztuko dira hauteskunde taldeen parte hartzea bultzatzeko eta botoa ematea ahalbi-detzeko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitakoa gorabehera, araudi honek indargabetu egiten du Gobernu Kontseiluak 2011ko apirilaren 14ko bilkuran onartutako Hauteskundeen Arautegi Orokorri buruzko Erregelamendua (2011-05-18ko EHAA, 93. zk.), 2015eko otsailaren 5eko Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bidez aldatu zena (2015-02-24ko EHAA, 37. zk.), eta 2015eko uztailaren 9ko erabakia (2015-07-24ko EHAA, 139. zk.).

AZKEN XEDAPENA

Arautegi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta argitaratu ostean abian jarriko diren prozedura guztiei ezarriko zaie. Tramitean dauden prozesuak, ostera, baliodunak izango dira.

I. ERANSKINA

Ordezkariek honela banatuko dira hondar handienaren sistema proportzionalari jarraiki:

Hautesle errolda: 120.

Esleitutako ordezkariek: 6.

Emandako boto kopurua: 118.

Boto baliogabeak: 2.

Boto baliiodunak: 116.

Boto zuriak: zero.

Boto baliiodunak = Emandako boto kopurua -boto baliogabeak

Ondoko formula hau erabiliko da koefizientea lortzeko:

$$\frac{\text{Boto baliiodunak} - \text{Boto zuriak} = 116}{\text{Ordezkariek kopurua 6}}$$

Ordezkariek kopurua 6

Koefizientea = 19,33 (hamartar birekin kalkulatuko da)

Hautagai zerrenda	Boto kop.	Koefizientea	Ordezkariek	Hondarra	2. banaketa
1	12	19,33	0	12	1
2	7	19,33	0	7	
3	5	19,33	0	5	
4	27	19,33	1	7	
5	6	19,33	0	6	
6	26	19,33	1	6	
7	15	19,33	0	15	1
8	18	19,33	0	18	1

Banaketa honakoa izango da:

Lehenengo banaketan 4. eta 6. hautagai zerrendek ordezkariek bana lortuko dute.

Bigarren banaketarako zenbaki osoak erabiliko dira. Horrela, bada, 4. eta 6. hautagai zerrendek 19,33 erabili dutenez lehenengo banaketan, 7,67 eta 6,67 geratuko zaie, hurrenez hurren; beraz, bigarren txandarako zenbaki osoak baino ez direnez erabiliko, hondarra 7 eta 6 izango da, hurrenez hurren. Horrela, 1., 7. eta 8. hautagai zerrendek ordezkariek bana lortuko dute.

Ordezkariek bat dago oraindik esleitu gabe, eta hautagai zerrenda bi geratzen dira banaketarako (hondarra: 7): 2. eta 4. zerrenda.

Berdinketa dagoenerako, Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 8. artikuluko 5. paragrafoan jasota dago zein irizpide erabili: boto gehien lortu duen hautagai zerrenda; hala ere berdinketa badago, zozketa egingo da.

Irizpide horien arabera, beraz, 4. hautagai zerrendak lortuko du ordezkariek, horixe izan baita boto gehien lortu duena.

2022ko azaroaren 9a, asteazkena

II. ERANSKINA
EMAITZEN SIMULAZIOA

Taldea	Estatut. %	Errolda	Hautagaietako balioz emand. botoak	Boto baliodunak %	1. hautagaiaren botoak	2. hautagaiaren botoak	3. hautagaiaren botoak
Sa, irakasle eta ikertzaile iraunkorrak	135 (56,25)	1892	1514	80	600	500	414
Sb, irakasle eta ikertzaile ez doktore iraunkorrak eta doktore ez iraunkorrak	19 (8)	1250	920	73	450	300	170
Sc, gainerako irakasle eta ikertzaileak	4 (1,59)	1946	1362	70	550	450	362
Sd, ikasleak	53 (22,08)	51000	7650	15	2000	3000	2650
Se, administrazio eta zerbitzuetako langileak	29 (12,08)	1300	910	70	400	300	210

BOTO HAZTATUAK

Taldea	Pr	Vv	Cp =	Pr Vv	C1	C2	C3	Guztira
Sa, irakasle eta ikertzaile iraunkorrak	56,25	1514	0,03715		22,29	18,55	15,38	56,22
Sb, irakasle eta ikertzaile ez doktore iraunkorrak eta doktore ez iraunkorrak	8	920	0,00869		3,91	2,607	1,477	7,994
Sc, gainerako irakasle eta ikertzaileak	1,59	1362	0,00116		0,638	0,522	0,4199	1,5799
Sd, ikasleak	22,08	7650	0,00288		5,76	8,64	7,632	22,032
Se, administrazio eta zerbitzuetako langileak	12,08	910	0,01327		5,308	3,981	2,786	12,075
Guztira					37,90	34,3	27,694	99,90

Bigarren txandara 1. eta 2. hautagaiak doaz.